

# BESTELAKO XEDAPENAK

SPRI-ENPRESEN GARAPENERAKO EUSKAL AGENTZIA

## 2506

*EBAZPENA, 2023ko maiatzaren 12koa, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziako zuzen-dari nagusiarena, «Barne-Ekintzaile» 2023 laguntza-programa arautzen duten oinarriak eta deialdia onartzen dituena.*

SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentzia Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari atxikitako zuzenbide pribatuko erakunde publikoa da, eta garatu behar dituen jarduerak helburu hauek dituzte: Euskal Autonomia Erkidegoan industria- eta enpresa-jarduera sustatzea eta euskal enpresei laguntzea trantsizio teknologiko-digitala, trantsizio energetikoa eta ingurumenekoa eta trantsizio demografiko-soziala egiten, lehiakortasunerako tresna gisa, inbertsioaren, berrikuntzaren, nazioartekotzearen eta enpresa-jarduera ekintzailearen sustapenaren bidez.

Horri dagokionez, SPRIk ekintzailatza eta barne-ekintzailatza bultzatzeko hainbat ekintza garatu izan ditu, eta, horretarako, enpresa-ekimen berriei behar duten laguntza eskaini die. Helburua laguntza integrala, malgua eta beharren arabera ematea da, ekimen horiek merkatuan arrakastaz abian jartzeko, hazteko eta finkatzeko aukera izan dezaten; era berean, erraztasunak ematen zaizkie hasierako finantzaketa eskuratzeko, eta, bereziki, proiektuek behar duten epe luzeko finantzaketa lortzeko.

Ondorioz, «Barne-Ekintzaile» laguntza-programak finantza-laguntza eman nahi die pertsona fisikoek edo enpresa eratu berriek gidatzen dituzten eta BIC baten tutoretzapean dauden enpresa-proiektu berritzaile eta/edo oinarri teknologikoko proiektu berriei, ahal dela, industria-arloko proiektuei eta/edo prozesu-produktu horiei lotutako zerbitzuetakoei, ideia heltzeko eta enpresa abian jartzeko faseetarako.

Horrela, programak laguntzak aurreikusten ditu enpresa berrien bideragarritasuna aztertu, abian jarri eta heltzeko prozesu osoan laguntzeko eta kultura eta sistematika ekintzailea ezartzeko, jarduerak kokatzeko aholkularitza eta azpiegiturak eskaintzen ditu, eta, horretaz gain, enpresako plana gauzatzeko beharrezko inbertsioen finantzaketa lortzeko bideak aurkitzea errazten du.

Bestalde, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onetsitakoa) 48.5 artikuluan xedatzen du Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren bidez finantzatuta dauden erakunde guztiek, dirulaguntzaren bat eman behar dutenean, publikitatearen printzipioa bete beharko dutela, besteak beste.

Adierazitako guztia dela eta,

**EBAZTEN DUT:**

Lehenengoa.– «Barne-Ekintzaile 2023» laguntza-programa arautzen duten oinarriak eta deialdia onartzea, zeinaren edukia ebazpen honen eranskinean jaso baita, eta, era berean, horri lotutako gastua onartzea.

Bigarrena.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian Barne-Ekintzaile 2023 programari lotutako oinarri arautzaile hauen ebazpena osorik argitaratzea.

2023ko maiatzaren 29a, astelehena

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziaren Administrazio Kontseiluaren aurrean; horretarako, hilabeteko (1) epea egongo da, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango du, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, bi (2) hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

#### AZKEN XEDAPENA

Erabaki honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Bilbao, 2023ko maiatzaren 12a.

SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziako zuzendari nagusia,  
AITOR URZELAI INZA.

## ERANSKINA

## «BARNE-EKINTZAILE 2023» LAGUNTZA-PROGRAMA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK

Ekintzailtza eta barne-ekintzailtza funtsezko politika izan da euskal administrazio publikoen zat. Horrela, hainbat plan eta programa onartu dira ekintzailtza modu integralean bultzatzeko, gero eta proiektu, enpresa eta enplegu lehiakor eta jasangarri gehiago sortu eta haz daitezzen, bereziki etorkizuneko sektoreetan, Euskal Autonomia Erkidegoko eraldaketa ekonomiko eta sozialaren etapa berri bat sortuz.

Euskadiko ekintzailtzan identifikatutako erronken artean dago «arrantza-leku» eta iturrietatik sortutako ideien eta ekimen berrien masa kritikoa eta kalitatea handitzea, proiektu bakoitzaren behar espezifikoek erantzunez. Finantzaletarako eta inbertitzeko aukerak eskaintzen zaizkie jai, abiarazi, hazi eta finkatzeko potentziala duten proiektuei; horretaz gain, merkatuan sartzeko eta «lehen bezeroak» lortzeko aukerak ematen zaizkie proiektu ekintzaileei, batez ere etorkizuneko sektoreetan potentzial handiena duten proiektuei.

Enpresa-ehuna berrasmatu eta eraldatzeko, erakundeak eraberritu eta birsortzeko eta plantilletan eskuragarri dagoen giza kapital ekintzailea baliatzeko formula bikaina izan da barne-ekintzailtza EAEko historian zehar. Pertsona eta erakunde ekintzaileei laguntzeko apustua herrialde osoaren konpromisoa da oraindik, eta, horretarako, inplikaturako erakunde eta eragile guztien arteko elkar-lana bultzatzen jarraitu nahi da, uste sendoa baitugu enpresa-ekimen berritzaile berriak sortzea giltzarri dela gure erkidegoak etorkizunean hazten jarrai dezan.

Horregatik guztiagatik, gure enpresa-sare sendoa ere funtsezkoa da, eta hala izaten jarraitu behar du, enpresa-ekimen berriak sortzeko eta gure hazkunde ekonomikoaren ereduaren egitura-aldaketan aurrera egiteko, ezagutza-jarduera trinkoak, teknologia berriak eta zerbitzu aurreratuak sartuz, eta ekintzailtza-sare global eta lehiakorra garatuz.

Euskadiko Enpresa eta Berrikuntza Zentroek (BIC) parte-hartze handia dute programan, ekintzaileei eta enpresak sortzeari laguntzeko tresna gisa duten eginkizuna dela eta. Zentro horiek enpresa berrien heltzeko eta abian jartzeko prozesu osoan laguntzen dute, enpresen jarduerak kokatzeko aholkularitza eta azpiegiturak eskaintzeaz gain.

Programa bat dator Euskadi Basque Country 2030 Agendarekin, Nazio Batuek 2015eko irailaren 25ean onartutako Garapen Jasangarrirako 2030 Agendari egindako euskal ekarpenarekin. Bertan ezartzen den bezala, enpresek zeregin garrantzitsua izan behar dute, eta hori aurrekaririk gabeko erantzukizun handia eta aukera ezin hobea da negozio baten helburuek ekitatearen eta jasangarritasunaren helburuekin bat egin dezaten. Azken batean, Garapen Iraunkorrerako Helburuek (GIH) aukera ematen dute garapen iraunkorraren arloan munduan dauden erronkarik handienei aurre egin ahal dieten konponbideak eta teknologiak garatu eta ezartzeko. Era berean, programa hau erakundeak 2023 ekitaldirako onartutako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren barruan dago. Plan hori Administrazio Kontseiluak onartu zuen 2022ko abenduaren 21ean, eta planeko helburu honetarako ekarpena egin zuen: «Berrikuntza irekiko eta barne-ekintzailtza prozesu industrialak sistematizatzen eta oinarri teknologikoa eta/edo berritzailea duten lotutako zerbitzuak sistematizatzen laguntzea.»

## 1.– Artikulua.– Xedea.

Oinarri hauen helburua da barne-ekintzaileen laguntza arautzea Euskal Autonomia Erkidegoan heltzeko eta abian jartzeko prozesu osoan zehar, euskal enpresen barruan egindako ekintzailtza-jarduera kontuan hartuta, enpresa-proiektu berriak bultzatzeko.

Barne-ekintzaitzako proiektu horiek enpresaren egungo jarduera dibertsifikatzea izan behar dute helburu, berritzaileak eta/edo oinarri teknologikokoak izan behar dute, industria-produktuari/-prozesuari lotutako industriakoak eta/edo zerbitzuetakoak izan behar dute, eta EAEn dauden Enpresa eta Berrikuntza Zentronen (BIC) baten babespean egon behar dute.

Laguntza hori honela gauzatuko da:

0. ildoak: Negozio berriak sortzeko plan bat garatzeko laguntza, barne hartuko dituen jarduera ekonomiko berriak sortzeko sustapen jarraitu eta sistematizaturako beharrekotako printzipioak, antolakuntza-kultura, sistematika eta lankidetzak. Horren emaitza izango da enpresarentzat lehen-tasunezkoa izango den aurretiazko analisi bat, 1. ildoan aurkezteko.

1. ildoak: Enpresari lagun egin ideia heltzeko eta enpresako plana egiteko prozesuan.

2. ildoak: 1. ildoko barneko ekintzaitza-proiektuek sortutako enpresa berrientzako laguntza, zehaztutako enpresako plana gauzatzeko behar diren inbertsioen finantzaketa errazago eskuratzeko.

2. artikulua.– Laguntzen izaera.

1.– Dirulaguntzen programa honek Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8.3 artikuluan ezarritako printzipioak bete behar ditu.

2.– Laguntza horiek behar bezala jasotako eskaerak ondoz ondo aitortzeko prozeduraren arabera emango dira. Ildo horretan, banaka eta ordenatuta ebatziko dira, oinarri hauetan eskatutako dokumentazio guztiarekin eskaera osatu den unearan arabera.

3.– Emandako laguntzak ez dira itzuli behar, eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzko 2013ko abenduaren 18ko Batzordearen 1407/2013 (EB) Erregelamenduan ezarritakoari lotuta egongo dira.

4.– Programa honetan emandako dirulaguntzak ez daude zuzen lotuta esportatutako kopuruei, banaketa-sare bat ezarri eta ustiatzeari edo esportazioarekin zerikusia duten bestelako gastu arruntei.

3. artikulua.– Terminoak eta definizioak.

1.– Business Innovation Center: Enpresa- eta berrikuntza-zentroak dira, irabazi-asmorik gabekoak; ekintzaileei eta enpresei laguntza ematen diete, enpresa-ekimen berritzaileak eta/edo oinarri teknologikoko enpresa-ekimenak sustatzeko eta haien garapena sustatzeko. BICak tresna dinamizatzaileak dira enpresa-proiektu berriak ekoizpen-sarean sartzeko, eta haien helburua da proiektu horien etorkizunari arrakasta-berme onenekin ekitea, berrikuntzaren eta lehiakortasunaren aldeko konpromisoaren bidez.

2.– Aholkularitza espezializatua: enpresentzako laguntzen arloan esperientzia duten aholkularitza-enpresa edo -profesionala, enpresa onuradunari aholkularitza- eta laguntza-zerbitzuak ematen dizkiona Negozio Berriak Sortzeko Plana prestatu eta abian jartzeko prozesuan.

3.– Negozio Berriak Sortzeko Plana (NBSP): enpresaren lehiakortasun-egoeraren eta negozio berrien diagnostiko laburra deskribatzen duen dokumentua. Horrez gain, jarduera ekonomiko berria etengabe sortzeko gakoak zehazten dira. Bertan, negozio berrien etengabeko sustapenerako beharrezko printzipioak, antolakuntza-kultura, sistematika eta lankidetzak zehazten dira.

4.– NBSP abian jartzeko txostena: dokumentu horrek enpresak plana abian jartzeko aurreikusitako lehen txosteko ekintzak identifikatzen ditu, baita honako hauek ere: abian jartzeko baliabideak, enpresak lehen txostekotzat jo duen negozio berriaren aukera zehatzaren aurreiazko balorazioa eta deskribapen laburra, prozesuaren autoebaluazio laburra eta enpresak ikasitako lezioak.

5.– Enpresako plana: negozio-aukera bat identifikatu, deskribatu eta aztertzen duen dokumentua, bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta finantzarioa aztertuta. Plan horretan negozio-aukera hori enpresa-proiektu bideragarri bihurtzeko behar diren prozedura eta estrategia guztiak garatzen dira.

6.– Enpresa txiki eta ertaina (ETE): Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomen-dioan aurreikusitakoaren arabera – L 124 Aldizkari Ofiziala, 2003-05-20koa, 0036-0041 orrialdeak.

7.– Erakunde laguntzaileak: oinarri arautzaile hauetan araututako laguntzen ondorioetarako, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden BICak eta Luzaro EFC SA, erakunde laguntzaile gisa, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan (Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura emandako dirulaguntzen bermeen eta itzulketen jardunbide orokorra arautzen duena eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituena) eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan (Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena) ezarritako baldintzetan, eta arau hauetan eta lankidetzaren hitzarmenean jasotako zehaztapenekin.

#### 4. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

1.– 2023ko laguntza-programa honen helburura bideratutako baliabide ekonomikoak 800.000 eurokoak dira, eta SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren aurrekontuetan horretarako ezarri diren aurrekontu-zuzkiduretatik aterako dira. SPRIren aurrekontuak Euskal Autonomia Erkidegoko 2023ko Aurrekontu Orokorretan sartuta daude.

2.– Funts hauek mugatuak direnez, laguntzak eskatu eta ematea ahalik eta lasterren egitea nahi du programak; beraz, laguntzak esleitzeko, espediente osorik dagoen unearen arabera egingo da, modu ordenatuan, eta ebazpen bidez ukatuko dira laguntzak, Programarako gehieneko zuzkidura gainditzen badute.

3.– Programara bideratutako funtsak agortuz gero, Programa amaitu egingo da eta horren berri emango da SPRIren zuzendaritza nagusiaren ebazpen bidez eta webgunean ([www.spri.eus](http://www.spri.eus)) eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

4.– Aurrekontu-kreditua agortutakoan, ezingo da laguntza berririk eman, eta berriaz atzera botako dira aurkeztu bai, baina ebazteko dauden eskariak.

#### 5. artikulua.– Erakunde onuradunak eta laguntzen onuradun izateko baldintzak.

1.– Negozio Berriak Sortzeko Planaren erakunde onuradunak (0. ildo).

Negozio Berriak Sortzeko Plana garatzeko laguntzaren onuradunak izan ahalko dira Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza soziala eta/edo gutxienez jarduera-zentro bat duten pertsona juridikoak, baldin eta 20 pertsona edo gehiagoko plantilla badute eskaera egiteko unean. Horrez gain, lanaldi osoen urteko baliokideak pertsona gisa zenbatuko dira, eta gutxienez 2.000.000 euroko urteko negozio-bolumena izan beharko du erakundeak. Gainera, enpresa-arloko, oinarri teknologikoko edo produktu-prozesu industrialarekin lotutako industria-eta zerbitzu-proiektuei buruzko proiektu-idea berritzaile bat izan beharko dute, eta Euskal Autonomia Erkidegoan abiarazi beharko da.

## 2.– Lagun egiteko laguntzaren erakunde onuradunak (1. ildoak).

Egoitza soziala edo/eta gutxienez jarduera-zentro bat Euskal Autonomia Erkidegoan duten pertsona juridikoak izan daitezke lagun egiteko laguntzaren onuradun, baldin eta enpresa-proiektu berritzailea eta/edo industria- eta teknologia-oinarrikoa eta/edo produktu-prozesu industrialei lotutako zerbitzuetakoa bada, eta Euskal Autonomia Erkidegoan abiarazi nahi bada.

## 3.– Finantzaketa lortzea errazteko laguntzaren erakunde onuradunak (2. ildoak).

Euskal Autonomia Erkidegoan enpresako plana gauzatzeko konpromisoa hartzen duten eta baldintza hauek betetzen dituzten pertsona juridikoek bakarrik jaso ahal izango dituzte finantzaketa eskuratzea errazteko laguntzak:

a) Sortu berriak izatea, hau da, 2022ko urtarrilaren 1aren ondoren eratutako enpresa guztiak, data hori barne.

b) Gutxienez 3 enplegu sortzea aurreikustea 3 urteko epean.

c) ETEak izatea.

d) Altan emanda egotea EAEko Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan dagokien industriako epigrafean.

e) Barne-ekintzailtza prozesu batetik etortzea.

## 4.– Honako hauek ezin izango dira deialdiaren laguntzen onuradun izan:

a) Administrazio publikoak edo haietariko baten sektore publikokoak direnak.

b) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13.2 artikuluan aurrez ikusitako kasuetako batean daudenak, besteak beste:

– Egunean ez edukitzea beren zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

– Egunean ez edukitzea dirulaguntzak itzultzeko prozeduraren ondoriozko betebeharrak.

– Zigor eta administrazioaren arloan dirulaguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko zigortuta ez egotea, ezta horretarako ezgaitzen dituen legezko debekuetan sartuta egotea ere.

– 2. ildoaren kasuan bakarrik, ez betetzea merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako ordainketa-epeak.

c) Armen ekoizpen, komertzializazio eta finantzaketaren arloetan jarduera garatzen dutenak.

d) Enpresa-proiektu berrien sustapenean, inkubazioan eta/edo azelerazioaren esparruetan jarduera garatzen dutenak.

e) Laguntza bat legez kontratatzat edo barne-merkatuarekin bateraezintzat adierazi duen Europako Batzordearen aurretiko adierazpen baten ondoren laguntza hori berreskuratzeko agindu baten zain daudenak.

f) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenean xedatutakoaren arabera, sexuagatiko diskriminazioa egin dutenak, bai eta dagokion zehapenean ezarritako aldiaren sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigor-zehapena jaso dutenak ere. Halaber, ez dute laguntza edo dirulaguntzarik jasoko Estatuan indarrean dagoen

araudiaren arabera berdintasun plana izan behar duten eta ez duten edo 50 langiletik gora dituzten enpresek; betiere egiaztatzen ez badute neurriak ezarri dituztela sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta horri aurre egiteko, Estatuko legediak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan ezarritako baldintzetan.

g) Ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legea ez betetzearen ondoriozko arau-hauste astun edo oso astunengatik zehatuak izan direnak ebazpen irmo baten bidez.

h) Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitako arau-hauste astun eta oso astunak egin izanagatik zehapena jaso dutenak, administrazio-bideko ebazpen irmoaren bidez; betiere, neurri zuzentzaile egokiak egikaritu eta zehapena bete arte.

i) LGTBIfobia gauzatu, bultzatu edo sustatu dutenak, leheneratzeko terapiak sustatu edo egitea barne, trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen arabera.

5.– Laguntza ekonomikoen onuradun izateko baldintzak, eskaera aurkezten denetik laguntza likidatu arte bete beharko dira.

6.– Aurreko paragrafoetan ezarritakoak honela egiaztatuko dira:

a) SPRIk eta/edo BICek ofizioz egiaztatuko du baldintza hauek betetzen direla:

– Industria-jarduerako zentro bat dutela Euskal Autonomia Erkidegoan, non proiektuak eragina izango duen.

– Egunean dituztela beren zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

– Finantzaketarako laguntzen kasuan (2. ildo):

a) ETEa dela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira, urteko enplegu-datuak, negozioaren bolumena eta balantze orokorra, bai enpresa eskatzailearena eta bai harekin lotutako gainerako enpresena ere, hala badagokio. Horrez gain, taldearen balantze globalak aurkeztu beharko dira, talde osoaren antolakuntza-eskemarekin, parte-hartzeekin, enplegu-datuekin, esportazio-zifrarekin eta balantzearekin, laguntzen eskaeraren aurreko bi ekitaldietakoak, halakorik balego.

b) Altan emanda egotea EAEko Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan dagokien industriako epigrafean.

c) Kontularitza-araudiaren arabera irabazi-galeren laburpena aurkeztu ezin duten sozietateek merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako ordainketa-epeak bete dituztela egiaztatuko da, Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatutako auditore batek emandako ziurtagiri baten bidez. Auditore horrek enpresa bezzeroaren ordainketen benetako epea hartuko du kontuan, enpresa hornitzaileari aldeztu aurretik kobratzeko edozein finantzaketa kontuan hartu gabe.

Hala ere, eskatzaileak berriaz uka dezake SPRIk eta/edo BICek ofizioz egiaztatzeko baimena; kasu horretan une bakoitzean eskuduna den organoak emandako ziurtagiri administratibo positiboak aurkeztu beharko ditu.

b) Kontularitza-araudiaren arabera urteko kontu laburtuen ereduak erabiltzen dituzten sozietateek merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako ordainketa-epeak bete dituztela egiaztatuko da. Hori eskaeraren inprimaki elektronikoaren barruan dagoen erantzukizunpeko adierazpen baten bidez egiaztatuko da, eta eskatzaileak erantzukizunpeko adierazpen horretan adierazitakoa egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko ditu SPRIk hala eskatzen dionean.

6. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen jarduketak.

Diruz lagundu daitezkeen jarduketak dira honako hauek:

0. ildoak: Negozio Berriak Sortzeko Planaren prestaketa, barne hartuko dituen jarduera ekonomiko berriak sortzeko sustapen jarraiturako beharrezko printzipioak, antolakuntza-kultura, sistematika eta lankidetzak. Laguntza hori itzuli beharrik gabeko dirulaguntza da.

1. ildoak: Pertsona edo talde sustatzaileari edo enpresari lagun egiteko ideia heltzeko eta enpresako plana egiteko prozesuan, hura martxan jarri arte. Laguntza hori itzuli beharrik gabeko dirulaguntza da.

2. ildoak: Enpresako plana gauzatzeko behar diren inbertsioen finantzaketa eskuratzea errazteko laguntza ematea eta inbertsio horiek gauzatzea.

7. artikulua.– Lagun egitean diruz lagundu daitezkeen gastuak Negozio Berriak Sortzeko Plana egiterakoan (0. ildoak).

1.– Negozio Berriak Sortzeko Planaren diagnostikoa egiteko, diseinatzeko eta abian jartzeko prozesuan lagun egiteko laguntzari begira, hauek hartuko dira gastu hautagarritzat:

– Negozio Berriak Sortzeko Planerako aholkularitza tekniko aditurako gastuak.

Negozio Berriak Sortzeko Planak atal hauek jaso behar ditu:

a) Enpresaren egoera lehiakorraren eta negozio berrien diagnostiko laburra.

b) Negozio Berriak Sortzeko Planaren diseinua.

I.– Negozio berrien arloko «mandamentuak» edo printzipioak.

II.– Negozio berrien antolakuntza (organigrama, funtzioak, pertsonen parte-hartzea...).

III.– Negozio berrien sistematika.

– Sistematikaren edo negozio berriak kudeatzeko prozesuaren diseinua eta berrikuspena.

– Lehentasunezko aukeren identifikazioa.

IV.– Intereseko eragileen mapa eta lehentasunezko kontaktuen agenda.

c) Plana abian jartzeko txostenak honako eduki hauetakoren bat jaso beharko du:

I.– Plana abian jartzeko lehentasunezko ekintzak.

II.– Enpresak abian jartzeko konprometituako baliabideak.

III.– Negozio berri bat sortzeko aukera zehatz baten laburpen laburra eta balorazioa, programaren 1. ildoan aurkezteko.

IV.– Prozesuaren autoebaluazioa eta enpresak ikasitako lezioak.



2.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak proiektuaren BIC tutoreak onetsi beharko ditu, eta baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Laguntza-eskaera egin ondoren eta gehienez ere 12 hilabeteko epean sortu beharko dira. SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak laguntza emateko Ebazpenaren aurretik egingako gastuak hautagarritzat jo ahalko ditu Ebazpenean, proiektuari hasiera eman ondoren, betiere 2023ko urtarrilaren 1aren ondoren egiten badira. Kasu horretan, 12 hilabeteko epea hautagarritzat jotako lehen gastuaren sortzapen-datatik aurrera hasiko da zenbatzen.

b) Ez da gastu hautagarritzat joko fakturan jasotako balio erantsiaren gaineko zerga.

c) Aurkeztutako proiektuaren arloan azpikontratututako kanpoko enpresek baldintza hauek bete beharko dituzte:

I.– Ezingo dira izan Administrazio Publikoen menpeko edo horiekin lotutako izaera juridiko propioko erakundeak.

II.– Ezingo dute loturarik izan, ekintza edo parte-hartzeen bidez laguntzaren eskatzailearekin edo lankidetzaproiektuan sartutako enpresetako batekin. Halaber, ezingo dituzte horiek administratu, zuzenean edo zeharka.

3.– Gastu hautagarriak baloratzeko, irizpide hauek izango dira kontuan:

a) Gastu hautagarriek lotura zuzena izan beharko dute programak xedetzat duen jarduerarekin, eta artikuluetan ezarritako baldintzak bete beharko ditu.

b) Deskontuak eta antzekoak izanez gero, gastua gutxitu egingo da.

c) Gastu hautagarria euroa ez den moneta batekin baloratzen bada, ordainketa-dataren truke-tasara bihurtuko da.

d) Ez dira inolaz ere gastu hautagarritzat joko fabrikatu edo merkaturatutako produktuak, ezta eskatzaileak edo taldeko edota lotutako enpresek laguntza-eskatzailearekin egindako lanak ere, ekintzen edo parte-hartzeen bidez, zuzenean edo zeharka.

4.– Edonola ere, oinarri hauen esparruan diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko dira Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 31. artikuluaekin bat datozenak.

8. artikulua.– Laguntzan diruz lagundu daitezkeen gastuak (1. ildo).

1.– Lagun egiteko dirulaguntzari begira, gastu hautagarritzat joko dira hauek, betiere 100 euroko gutxieneko zenbatekoa gainditzen badute:

- Prestakuntza espezifiko eta enpresakoa.
- Aholkularitza eta kanpoko laguntza teknikoaren gastuak.
- Prospekzio- eta dokumentazio-gastuak.
- Prospekzio komertzialeko azoka eta bidaietan parte hartzea.
- Maketa eta prototipoak egitea.
- Beste batzuk.

2.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak proiektuaren BIC tutoreak onetsi beharko ditu, eta baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Maketa eta prototipoen gastuek, oro har, ezingo dute gainditu onetsitako aurrekontu totalaren % 25.

b) Laguntza-eskaera egin ondoren eta gehienez ere 18 hilabeteko epean sortu beharko dira. SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak laguntza emateko Ebazpenaren aurretik egingadako gastuak hautagarritzat jo ahalko ditu Ebazpenean, proiektuari hasiera eman ondoren, betiere 2023ko urtarrilaren 1aren ondoren egiten badira. Kasu horretan, 18 hilabeteko epea hautagarritzat jotako lehen gastuaren sortzapen-datatik aurrera hasiko da zenbatzen.

c) Ez da gastu hautagarritzat joko fakturan jasotako balio erantsiaren gaineko zerga.

d) Aurkeztutako proiektuaren arloan azpikontratututako kanpoko enpresek baldintza hauek bete beharko dituzte:

I.– Ezingo dira izan Administrazio Publikoen menpeko edo horiekin lotutako izaera juridiko propioko erakundeak.

II.– Ezingo dute loturarik izan, ekintza edo parte-hartzeen bidez laguntzaren eskatzailearekin edo lankidetzat proiektuan sartutako enpresetako batekin. Halaber, ezingo dituzte horiek administratu, zuzenean edo zeharka.

3.– Gastu hautagarriak baloratzeko, irizpide hauek izango dira kontuan:

a) Gastu hautagarriek lotura zuzena izan beharko dute programak xedetzat duen jarduerarekin, eta artikuluetan ezarritako baldintzak bete beharko ditu.

b) Deskontuak eta antzekoak izanez gero, gastua gutxitu egingo da.

c) Gastu hautagarria euroa ez den moneta batekin baloratzen bada, ordainketa-dataren truke-tasara bihurtuko da.

d) Ez dira inolaz ere gastu hautagarritzat joko fabrikatu edo merkaturatutako produktuak, ezta eskatzaileak edo taldeko edota lotutako enpresek laguntza-eskatzailearekin egindako lanak ere, ekintzen edo parte-hartzeen bidez, zuzenean edo zeharka.

4.– Edonola ere, oinarri hauen esparruan diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko dira Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 31. artikuluekin bat datozenak.

9. artikulua.– Finantzatu beharreko inbertsioak, finantza-eragiketak eta maileguen ezaugarriak finantzaketarako sarbidea errazteko laguntzetan (2. ildo).

1.– Finantzaketarako sarbidea erraztera bideratutako laguntzari begira (2. ildo), inbertsioek bat egin beharko dute aktibo finkoko elementu berriekin. Halaber, pertsona juridikoaren kapital sozialarekin autofinantzatu beharko dira gutxienez % 30ean, sinatu eta ordaindutako kapital-ekarpenaren bidez, dirulaguntzen bidez jasotako zatia zenbatu gabe.

2.– Honako hauek dira finantzatu beharreko inbertsioak:

a) Ibilgetu materiala, lurrak eta eraikinak izan ezik.

– Lokalen erreforma eta egokitzapenak.

– Makineria.

- Ekipamendu-ondasunak.
- Tresneria.
- Ibilgailu industrialak.
- Instalazio teknikoak.
- Altzariak.
- Aktibo finko materialetako beste inbertsio batzuk.

b) Ibilgetu ukiezina.

- Aplikazio informatikoak.
- Jabetza industrialak.
- Jabetza intelektuala eta administrazio-pizgarrien kanonak edo frankiziak.

Ibilgetu ukiezinen inbertsioak hautagarritzat joko dira soilik ibilgetu materialaren inbertsioak badaude.

3.– Edonola ere, oinarri hauen esparruan diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko dira Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 31. artikularekin bat datozenak.

4.– Finantzetarako sarbidea erraztera bideratutako laguntzak (2. ildoak) erakunde onuradunek SPRIren, Luzaro Establecimiento Financiero de Crédito erakundearen eta autonomia-erkidegoko Administrazioaren artean sinatutako lankidetzak-hitzarmenaren esparruan formalizatutako mai-legu-eragiketen bidez artikulatuko dira.

5.– Hauek izango dira maileguen ezaugarriak:

Gutxieneko zenbatekoa: 40.000 euro.

Gehieneko zenbatekoa: 180.000 euro.

Interes-tasa: Sei hilabeteko Euribor + % 1,25.

Amortizazio-epea: 7 urte.

Gabezia: 2 urte.

Kuotak: Hiruhilekokoak, hiruhileko natural bakoitzaren amaieran.

Bermeak: Enpresa-proiektua egikaritzeko konpromisoa.

Irekiera- eta azterketa-komisioa: Salbuetsita.

Xedapena: Erakunde kolaboratzaileak baimentzen duen neurrian, proiektuaren egikaritzearen arabera.

6.– SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak, zuzendari nagusiaren Ebazpenaren bidez, eragiketen epea eta gabezia-epea luzatu ahalko ditu, gehienez ere 3 urteko epean eragiketaren hasierako epetik. Luzapen hori egingo da Luzarok edo enpresak egindako eskaeran oinarrituta, prestatzaileek ordaintzen egutegia betetzeko justifikatutako zailtasunei begira, eta jatorrizko mai-legu-kontratuan atxikitako eranskinean formalizatuko da.

10. artikulua.– Laguntzen modalitateak eta zenbatekoak.

Deialdiaren xede diren laguntzak dirulaguntza gisa erabiliko dira:

1.– Negozio Berriak Sortzeko Plana egiteko (0. ildo), hautatu daitezkeen gastuen % 70 arte hartuko dira kontuan, gehienez ere 30.000 euro.

2.– Lagun egiteko (1. ildo), hautatu daitezkeen gastuen % 100 arte hartuko dira kontuan, gehienez ere 30.000 euro.

3.– Finantzaketan sartzeko (2. ildo) honako hauek diruz lagundu ahal izango dira:

– Aurkeztutako inbertsioak finantzatzeko maileguaren % 20.

– Mailegua formalizatu eta indarreko hiruhileko naturalaren amaieraren arteko aldiaren sortutako interesak, baita hiruhileko bakoitzean sortutako interesak ere, hurrengo 8 hiruhileko naturaletan zehar.

11. artikulua.– Laguntzak metatzea, mugak eta azpikontratazioa.

1.– Programa honetan aurreikusitako laguntzak beste laguntza bateragarri batzuekin edo Erki-degoaren beste finantzaketa-modu batzuekin metatu ahal izango dira, baldin eta gastu hautagarri berberetarako gehieneko laguntzaren intentsitatea errespetatzen bada.

2.– Laguntzaren zenbatekoa, bakarrik zein administrazioak edo sektore publikoak emandako beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin bat eginda, inolaz ere ezin da izan onuradunak egin beharreko jardueraren kostua baino handiagoa. Beste laguntza publiko batzuen eta programa honen bidez emandakoaren batura kostu hori baino handiagoa bada, programa honetan araututako laguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da, jardueraren gehiegizko finantzaketa saihesteko beharrezkoa den neurrian.

3.– Programa hau aplikatuz emandako laguntzak garrantzi txikiagoko edo minimis laguntzat hartzen dira.

4.– Erakunde onuradun batek jaso dezakeen minimis laguntza, guztira, ezingo da 200.000 eurotik gorakoa izan, hasitako ekitaldi ekonomikoan eta aurreko bi urteetan zehar kontabilizatuta.

5.– Minimis laguntzak ezin dira metatu gastu berberetarako estatutik jasotako laguntzekin, baldin eta batura hori laguntza baino handiagoa bada, edo kategorien araberako salbuespenen erregelamendu batean nahiz Europako Batzordearen erabaki batean kasuan kasuko inguruabarretarako ezarritako laguntzen zenbatekoa baino handiagoa bada.

6.– Muga horietako bat edo programak ezarritakoren bat gaindituz gero, ematen den laguntzari soberako diru-kopurua kenduko zaio.

7.– Minimis laguntzak emandakotzat joko dira enpresari laguntza jasotzeko legezko eskubidea aitortzen zaion unean.

8.– Diruz lagundutako jarduerak hirugarrenekin azpikontratatzea edo kontratatzea:

a) Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 29. artikuluan xedatutakoarekin bat, onuradunak azpikontratazioa egiten duela ulertuko da dirulaguntzaren xedeko jardueraren zati baten burutzapena beste batekin hitzartzen duenean. Azpikontratazioaren kontzeptu horretatik kanpo gelditzen da onuradunak diruz lagundutako jarduera bere kabuz gauzatzeko egin behar dituen gastuen kontratazioa. Horri dagokionez, hirugarrenen azpikontratazioa edo kontratazioa diruz

lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 100era iritsi ahal izango da, eta diruz lagundutako jarduerak azpikontratatzeko edo kontratatzeko, 29. artikuluan jasotako gainerako aurreikuspenak aplikatu beharko dira.

b) Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 31.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada kontratazio publikoaren arloan indarrean dagoen araudiak kontratu txikirako ezarritakoa baino, gutxienez hiru hornitzaileari eskatu beharko dizkie eskaintzak onuradunak. Zerbitzu bat egiteko edo ondasun bat emateko konpromisoa hartu aurretik eskatu beharko dira eskaintzok, salbu eta merkatuan ez badago zerbitzu-ondasunok emateko edo hornitzeko behar beste erakunde (ezaugarri bereziak dituztelako), edo dirulaguntza jaso aurretik egin bada gastua.

Aurkeztutako eskaintzak hautatzeko, efizientzia- eta ekonomia-irizpideak erabiliko dira, eta, proposamen ekonomikorik onena aukeratzen ez denean, beren-beregi justifikatu beharko da inguruabar hori.

c) Onuraduna enpresa denean, eta aplikatu daitekeen kasuetan, diruz lagundu daitezkeen gastuak Dirulaguntzen Lege Orokorraren 31.2 artikuluan ezarritako epeetan ordaindu beharko dira.

## 12. artikulua.– Eskaeren aurkezpena.

1.– Eskaerak, errekerimenduak, jakinarazpenak, zuzenketak eta oinarri hauetan inplikaturako gainerako kudeaketak bitarteko elektronikoaren bidez egingo dira, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren webgunearen bidez.

2.– Aipaturako egoitza elektronikoan egongo dira eskuragarri bide elektronikoz izapidetzeko jarraibideak, bai eta eskaerak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako ereduak ere.

3.– Laguntzaren eskaera eta eskaturako dokumentazioa aukeratzen den hizkuntzan aurkez daitezke. Gainera, laguntzen eskaeraren ondoriozko jardueretan eta prozedura osoan zehar, erakunde eskatzaileak aurkezten duen hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Legearen arabera.

## 13. artikulua.– Laguntza eskatzea.

1.– Laguntzen onuradun izateko baldintzak betetzen dituzten erakundeek SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren webgunean eskuragarri dagoen eskaera bete behar dute.

2.– Eskaera hori erakundea ordezkatzeko ahalordea duen pertsonak sinatu beharko du, sinadura elektronikoa aurreratu bidez (aitortutako ziurtagiri elektronikoa bidez). Aurkezpen-datatzat hartuko da SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren sistematan eskarian duen sinadura elektronikoa.

3.– Laguntzaren eskaerak berekin dakar SPRI baimentzea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea eskatzeko, bai eta enpresa EJZn (Ekonomia Jardueren gaineko Zerga) altan emanda dagoen epigrafea kontsultatzeko ere.

4.– Laguntzaren eskaerak pertsona fisikoaren edo enpresa eskatzailearen identifikazio-datuak eduki beharko ditu, bai eta haren legezko ordezkariarenak ere.

## 14. artikulua.– Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– Aurreikusitako laguntzak eskuratzeko baldintzak betetzen dituzten erakundeek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

a) Erakundearen ordezkari legalaren izen-abizenak eta nortasun-agiri nazionala (NAN) edo atzerriarren identifikazio-zenbakia (AIZ).

- b) Sozietatearen eratze-eskriuraren kopia.
- c) Sozietatearen ordezkariaren boterearen kopia.
- d) Identifikazio fiskaleko txartelaren kopia.
- e) Emandako kontu korrontearen banku-titulartasunaren ziurtagiria.
  - f) Erakundearen ordezkari legalaren erantzukizunpeko adierazpena. Erakundearen ordezkari legalak egindako eskaeran atxikitako adierazpena, ereduarekin bat, non inguruabar hauek jasoko diren:
    - Armen ekoizpenarekin, merkaturatzearekin eta finantzatzearekin lotutako jarduerak ez garatzea, Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunaren abenduaren 28ko 14/2007 Legean xedatutakoaren arabera.
    - Dirulaguntzak itzultzeko betebeharren ordainketa egunean izatea. Eskatzailea izaera horretako itzulera- edo zehapen-prozesuan badago, dirulaguntza ematea edo ordaintzea prozesuaren emaitzaren arabera izango da.
    - Ezein prozeduratan kaudimengabetzat jo ez izana, lehiaketa-adierazpena eskatu izana, lehiaketan deklarata egotea, esku-hartze judizialaren mende egotea edo Konkurtso Legearen arabera desgaituta egotea lehiaketaren kalifikazio-epaian ezarritako desgaituta-aldia amaitu gabe.
    - Aurreko bi ekitaldi fiskaletan eta laguntza eskatzen den ekitaldi fiskalean zehar emandako minimis laguntzen zerrenda, emakida-data, organismoa, programa eta laguntzaren zenbatekoa adierazita.
    - Proiektu berdinerako eskatu diren edo erakunde publiko edo pribatuek eman dituzten laguntzen zerrenda, eskaeraren eta hala badagokio emakidaren data, organismoa, programa eta laguntzaren zenbatekoa adierazita.
    - Laguntza-kontzeptuan 200.000 euro baino gehiago jaso ez izana hiru urteko epean; horretarako aurreko bi urteetako ekitaldi fiskalak eta laguntza eskatu den urteko ekitaldi fiskalak hartuko dira kontuan.
    - Ez duela sexu-diskriminaziorik egin, ez duela antzeko arrazoiengatik zehapenik jaso, eta indarrean dagoen Estatuko araudiaren arabera berdintasun-plan bat izatea.
  - g) Era berean, 0. ildorako:
    - Datu orokorrak (kanpoko aholkularia, jardueren proiektua, zedarriak, planifikazioa, partaideak...) eta diruz lagundu daitezkeen gastuen zenbatetsitako aurrekontua.
    - Kotizazioen Likidazioen Zerrenda agiria eta itxitako azken ekitaldiko Sozietateen Gaineko Zerga.
  - h) 1. ildorako:
    - 1. fasea: datu orokorrak (proiektuaren jatorria, garatuko den produktua edo zerbitzua, xede den merkata...) eta diruz lagundu daitezkeen gastuen aurrekontu zenbatetsia eta inbertsio-, fakturazio- eta enplegu-arloetako aurreikuspen-datuak, datozen hiru urteetarako.
  - i) Amaitzeko, 2. ildorako, agiri hauek ere aurkeztu beharko dira.
    - Enpresa Planaren kopia bat.

– Enpresa-talde baten kide izatekotan, taldearen eta zeharkako parte-hartzea duten beste sozietate batzuen sozietate-organigrama (ETE irizpidearen arabera: Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/CE Gomendioa), parte-hartzearen ehunekoa adierazita.

– Eskatzailea ETE bat dela egiaztatzeko dokumentazioa, hau da, urteko enplegu-datuak, negozioaren bolumena eta balantze orokorra, bai enpresa eskatzailearena eta bai harekin lotutako gainerako enpresena ere, hala badagokio. Horrez gain, taldearen balantze globalak aurkeztu beharko dira, talde osoaren antolakuntza-eskemarekin, parte-hartzeekin, enplegu-datuekin, espordazio-zifrarekin eta balantzearekin, laguntzen eskaeraren aurreko bi ekitaldietakoa.

– Eskatzaileak urteko kontu laburtuen ereduak erabiltzen dituenean, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako ordainketa-epeak betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du.

– Kontularitza-araudiaren arabera irabazi-galeren laburpena aurkeztu ezin duten sozietateek ordainketa-epeak bete dituztela egiaztatuko da, Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatutako auditore batek emandako ziurtagiri baten bidez. Auditore horrek enpresa bezeroaren ordainketen benetako epea hartuko du kontuan, enpresa hornitzaileari alde aurretik kobratzeko edozein finantzaketa alde batera utzita.

2.– Halaber, SPRIk eta finantza-erakundeak beste dokumentu batzuk eta informazio osagarria eskatu ahalko dituzte beharrezkotzat jotzen denean aurkeztutako eskaera ulertzeko, ebaluatzeko eta izapidetzeko.

3.– Enpresa eskatzaileak eta SPRIk baliozkotasuna emango diete posta elektronikoko bidez enpresak laguntza-eskaeran adierazitako harremanetarako pertsonaren kontura bidalitako jakinarazpen guztiei. Soilik harremanetarako posta elektronikoko kontu gisa onartuko da programaren onuradun gisa agertzen den enpresari dagokiona.

15. artikulua.– Laguntza-eskaerak aurkezteko epea.

Laguntza-eskaerak aurkezteko epea oinarri hauek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasi eta 2023ko abenduaren 11n amaituko da. Dena dela, eskatzaileentzako arreta teknikoa 2023ko abenduaren 11ko 15:00etan amaituko da (Espainiako ordu penintsularra).

16. artikulua.– Ebaluazio- eta ebazpen-prozedura.

1.– Aurkezpena:

a) Erakunde eskatzaileak eskaera bete eta telematikoki bidaliko du.

b) SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak BIC bati esleituko dio eskaera.

c) BIC horrek egiaztatuko du informazio guztia zuzena dela, eta horren aldeko txostena egingo du, hala badagokio.

2.– Ebaluazioa.

1.– Aurkeztutako laguntza-eskaeren analisia eta ebaluazioa BICen esku egongo da, eta eskatzaileari beharrezkotzat jotzen duten dokumentazio eta informazio guztia eskatu ahalko diote horietako bakoitza behar bezala ulertu eta ebaluatzeko.

Eskaerak hutsak baditu, ez bada oso-osorik bete edo ez bada atxiki aurreko artikuluan zerrendatutako dokumentazioa, BICak edo SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak enpresa

interesdunari eskatuko dio 10 eguneko epean hutsune horiek betetzeko edo nahitaezko dokumentuak aurkezteko. Gainera, adieraziko dio hori egin ezean eskaera bertan behera geldituko dela, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren zuzendari nagusiaren aurretiazko ebazpenarekin, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoarekin bat. Eskaera bat aintzat hartuko da dokumentazio osoa aurkezten denean.

2.– Laguntzak eman eta ebazteko espedienteen izapidetzea, arau honetan xedatutakoarekin bat, modu ordenatuan egingo da, eskaerak eta dokumentazio osagarriak osatutako espedienteak osatzen den unearen arabera.

3.– BICek egin beharko dituzte aurkeztutako eskarien analisiak eta hasierako balidazioa, eta oinarri hauetako 18. artikuluan esleitutako funtzioen baitan, proiektua analizatzen duen txosten bat egin beharko dute Negozio Berriak Sortzeko Plana bada (0. ildo), enpresa-proiektua egin beharko dute lagun egiteko bada (1. ildo) eta enpresa-plana, finantzaketarako laguntza bada (2. ildo).

BICek egiaztatuko dute enpresa eskatzaileak ETEak direla, Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/CE Gomendioan adierazitakoarekin bat, 2003ko maiatzaren 20ko 124. Aldizkari Ofizialean (EBA) argitaratu zena, 0036-0041 orrialdeetan.

BICek eskaerei buruzko txosten bat bidaliko diote proiektuan jarraipena egiteko Balorazio Batzordeari; hura Lurralde Historiko bakoitzean osatuko dute Eusko Jaurlaritzako, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziako eta Foru Aldundietako kideek.

Balorazio Batzordeak proposamenak aztertuko ditu sarrera-ordenari jarraikiz. Espedienteak beteko dira, eta programa honetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatuko da.

Batzordeak hartutako erabakian oinarrituta, SPRIren Zuzendaritza Nagusiari zuzendutako laguntza emateko proposamena idatziko da.

4.– Mailegu formalizatuen bidez inbertsioen finantzaketarako sarbidea erraztera bideratutako laguntzen eskaerak, hitzarmenaren babespean, Luzaro EFC erakundeari bidaliko dizkio SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak. Luzaro EFC erakundeak eskaera onartu edo ukatzeko erabakia jakinaraziko die eskatzaileari eta SPRIri hura jaso eta hilabete bateko epean, eta, ondoren, SPRIk dagokion baieztapen- edo gaitzespen-ebazpena emango du.

### 3.– Ebazpena.

1.– Ebazpena Zuzendaritza Nagusiak emango du, zuzeneko esleipenaren erregimenean, eta eskaerak aurkezpen-ordenaren arabera ebatziko dira, beharrezko aurrekontu-kreditua dagoen bitartean.

2.– Programan parte hartzeko baldintzak betetzen ez dituzten eskaerak gaitzetsi egingo dira SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren zuzendari nagusiaren banakako ebazpenen bitartez, eta horiek enpresa eskatzaileei jakinaraziko zaizkie.

3.– Gehienez ere 6 hilabeteko ebazpen-epea ezartzen da, dokumentazio osoa aurkezten denetik zenbatzen hasita. Ebazpena ez bada epean ematen, gaitzespen-ebazpentzat joko da.

4.– Esleitutako laguntzen ezagutza orokorrerako, SPRIren webgunean eta EHAAAn argitaratuko dira.



17. artikulua.– Laguntzen likidazioa – Ordainketa.

1.– Negozio Berriak Sortzeko Plana egiteko laguntza (0. ildoa) eta Lagun egiteko laguntza (1. ildoa).

a) Erakunde onuradunei emandako dirulaguntza SPRiren bitartez igorriko da, BICek egindako balorazioaren eta SPRiren ondorengo balioztapenaren arabera.

b) Periodikoki, erakunde onuradunek proiektuaren exekuzioa justifikatu beharko dute, SPRiren aplikazio informatikoko likidazioaren eskaera-inprimakiak erabiliz.

c) Likidazio-eskaera erakundea ordezkatzeko ahalordea duen pertsonak sinatu beharko du, sinadura elektronikoa aurreratu bidez. Aurkezpen-datatzat hartuko da SPRiren sistemetako sinadura elektronikoa.

d) Likidazio-eskaera dokumentazio honekin batera aurkeztu beharko da:

I.– Gastu eta inbertsio hautagarrien fakturak, kostuen banakapenarekin.

II.– Fakturen ordainketen ordainagiriak, kontuetan edo ordainketaren banku-ziurtagirian islatuta.

III.– Hala badagokio, emandako zerbitzuaren egiaztagiriak.

IV.– Seihilekoan behin: Negozio Berriak Sortzeko Planaren prestaketaren bilakaera, jardueraren memoriaren bidez.

V.– Lagun egiteko aldiaren amaieran: Negozio Berriak Sortzeko Plana eta NGSP hori abian jartzeko egindako txostena.

VI.– Enpresa sortzeko unean: sozietatearen eratze-eskriuren kopia eta IFZ.

Likidazioa ez bada guztiz betetzen edo ez bada haiekin batera eskatutako gainerako dokumentazioa aurkezten, SPRIk edo dagokion BICak erakundearen legezko ordezkariari eskatuko dio gehenez ere 10 egun balioduneko epean hutsune hori betetzeko edo nahitaezko dokumentuak aurkezteko.

2.– Finantzaketarako sarbidea erraztera bideratutako laguntza (2. ildoa).

a) Itzuli behar ez den dirulaguntzari dagokionez, SPRIk 15 egun naturaleko epean ordainduko du, SPRiren ebazpenaren erakunde onuradunari jakinarazten zaionetik. Halaber, kopuru hori Luzarok pignoratu du, finantzaketa-berme gisa. Finantzaketa-baldintzak betetzen direnean, zehaztutako kopurua onuradunari itzuliko zaio.

b) Interesei dagokionez, Luzarok SPRiri dagokion kuota kobratu duela jakinarazten dioenean, SPRIk enpresa onuradunari honako hau ordainduko dio:

I.– Maileguaren formalizazio-dataren eta indarreko hiruhileko naturalaren amaieraren arteko aldiaren sortutako interesak.

II.– Hiruhileko bakoitzean sortutako interesak, hurrengo 8 hiruhileko naturaletan zehar.

Ordainketak zuzenean Luzaro finantza-erakundearekin harremanetan dagoen erakunde onuradunaren kontuan egingo dira.

c) Erakunde onuradunek laguntza emandako xederako erabiltzeko betebeharra izango dute, eta BICei honako dokumentazio hau emateko konpromisoa hartzen dute:

I.– Seihilekoan behin: Inbertsioen egoeraren txostena, baita fakturen eta ordainagirien bidez egindako ordainketak ere.

II.– Seihilekoan behin: Jardueraren txostena eta Enpresa Planaren exekuzioa, desbideratzeak, berrikuspenak eta doikuntzak.

18. artikulua.– Erakunde laguntzaileak.

1.– Oinarri hauetan jasotako araudiarekin bat ematen diren laguntzei dagokienez, EAeko BICak eta Luzaro erakunde laguntzaile izendatzen dira, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritako terminoetan, baita arau honetan eta dagokion lankidetzaz hitzarmenean jasotako zehaztapenekin bat ere.

2.– Hauek dira EAEn kokatutako BICak:

Araba:

– BIC Araba: Arabako Eraberrikuntza-Industrialdea A.B. – Centro de Empresas e Innovación de Álava S.A.

Bizkaia:

– BIC Bizkaia Ezkerraldea: Ezkerraldeko Enpresa-Garapenerako Zentroa.

– Bizkaiko Enpresa- eta Aurrerapen-zentroa / Centro de Empresas de Innovación de Bizkaia (BEAZ).

Gipuzkoa:

– BIC Gipuzkoa: Gipuzkoako Enpresa- eta Berrikuntza-zentroa.

– Saiolan.

3.– BICak, erakunde laguntzaile gisa, honako funtzio hauez arduratuko dira:

a) Dokumentazioa aztertu eta proiektuak hasiera batean balioztatzea.

b) Onetsitako proiektuaren jarraipena eta tutoretza.

c) Ordainketa-proposamenaren ebaluazioa eta hasierako balioztatpena.

d) Finantzaletarako laguntzaren kasuan (2. ildoan), Enpresa Planak aztertzeko txostenak egitea eta horiek Balorazio Batzordeari eta hala badagokio Luzarori bidaltzea.

e) Oinarri hauetako 19. artikuluan araututako laguntzaren baldintzak aldatzeko proposamenak.

f) Edonola ere, oinarri hauetan jasotako guztiak.

4.– Luzaro, erakunde laguntzaile gisa, honako funtzio hauez arduratuko da:

a) SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak bidalitako 2. ildoko proiektuak aztertu eta ebaluatzea.

b) SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziari eta onuradunari horiek onespina edo gaitzespena jakinaraztea.

c) Poliza formalizatzea.

d) Enpresa onuradunei zuzendutako ordainketa igortzea.

e) SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziari periodikoki onuradunen kuoten ordainketen eta sortutako arazoen berri ematea.

f) Edonola ere, oinarri hauetan jasotako guztiak.

19. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

Onuradunen betebeharrak dira Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 14. eta 46. artikuluetan eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.2 artikuluan aurreikusitakoak, eta, zehazki, hauek:

a) Emandako laguntza onartzea. Alde horretatik, dirulaguntzaren emakidaren jakinarazpenaren harrera-data eta hamar egun balioduneko epean erakunde onuradunak ez badio espresuki uko egiten hari SPRIren aurrean, ulertuko da hura onartuta gelditu dela.

b) Emandako laguntza haren xede den jarduketa-plana garatzeko erabiltzea.

c) Onartzea SPRIk beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio gehigarri guztia eskatu ahal duela, eta SPRIk izendatutako langileek beharrezko eta komenigarritzat jotzen dituzten egiazta-penak egin ditzaketela euren instalazioetan, esleitutako laguntzaren xede den proiektua egikaritu dela eta eskatutako baldintzak bete direla egiaztatzeko.

d) Faktura guztiak gordetzea eta SPRIren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren esku jartzea lau urteko epean zehar, gastu hautagarriak egiten direnetik zenbatzen hasita.

e) Eusko Jaurlaritzaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari edo beste kontrol-organo eskudun batzuei, bai nazionalak eta bai komunitarioak, eskatutako informazioa ematea laguntzen jomugaren fiskalizazio-funtzioak betetzean.

f) Berehala jakinaraztea SPRIri eta BICari eskaera edo dirulaguntza edo laguntzak jaso izana, baita diru-sarrera edo baliabideak ere, hemen araututako laguntzen xede bera badute, edozein Administrazio edo erakunde publiko edo pribaturen eskutik jasotakoak.

g) SPRIri laguntza esleitzeko kontuan hartutako edozein inguruabar aldatu dela jakinaraztea.

h) Programa honen bitartez emandako dirulaguntzaren jatorriaren publizitate egokia egitea.

i) Hizkuntza eta irudien erabilera ez-sexista bermatzea diruz lagundutako proiektua osatzen duten dokumentu eta euskarrietan.

20. artikulua.– Laguntzak aldatzea.

1.– Laguntza emateko kontuan hartutako baldintzak, beste Administrazio edo erakunde publiko edo probatuek emandako laguntza edo dirulaguntzak eta xede bererako beste edozein diru-sarrera edo baliabideak aldatzen badira, laguntza emateko ebazpena ere aldatu ahalko da, betiere programa honetan ezarritako gutxieneko baldintzak babesten badira.

2.– Jarduketak laguntza-eskaeran eta aurkeztutako dokumentazio osagarrian jasotakoak izango dira, eta aldaketak baimendu ahalko dira, betiere aldaketa horiek aldez aurretik justifikatu baditu erakunde onuradunak, amaitu aurretik, eta ez bada hutsaltzen programa honek hasiera batean jarraitutako jarduketa eta helburuen izaera.

## 21. artikulua.– Ez-betetzeak.

1.– Erakunde onuradunek oinarri hauetan eta gainerako arau aplikagarrietan ezarritako baldintzak edo laguntzen emakidaren ebazpenean ezarritako baldintzak urratzen badituzte, emandako laguntza jasotzeko eskubidea galduko dute, eta SPRIri ordura arte jaso dituzten laguntzen zenbatekoa itzultzeko betebeharra izango dute; horrekin batera, dagozkien berandutze-interesak ere ordaindu beharko dituzte, eta, beharrezkoa izanez gero, itzulketa hori lortzeko ekintza legalak abiaraziko dira. Halaber, enpresa hornitzaileari debekatu ahalko zaio programa honekin lotutako proiektu berriak egitea, egiaztatzen bada ez dagoela halakorik.

2.– Edonola ere, ez-betetzetzat joko dira honako hauek artikulua honetan aurreikusitakoaren arabera:

a) SPRIren baimenik gabe laguntza-eskaeran eta dokumentazio osagarrian aurreikusitako jarduketak aldatzea. Egikaritzearen edozein aldaketa ez bazaio SPRIri jakinarazten eta aldaketa horrek laguntzaren emakidaren azterketa-baldintzak aldatzen baditu, ez-betetzetzat joko da ondore horietarako.

b) Gastu hautagarriak epean ez justifikatzea edo ez betetzea programa honetan edo laguntza emateko ebazpenean eskatutako baldintzak.

c) Diruz lagundutako proiektua egikaritzeko ezarritako epeak gainditzea, betiere ez badago aldaketa- edo luzapen-baimenik.

d) Laguntza lortu izana programa honetan jasotako baldintzak bete gabe edo laguntzaren emakidari begira ezarritakoak urratuz.

e) Programan edo laguntzaren emakidan aurreikusitako kontrol-neurriei uko egitea edo oztopatzea.

f) Proiektua beste edozein modutan desbideratzea edo ez betetzea laguntzaren emakidaren ebazpenean ezarritako beste edozein betebeharrak.

g) Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluan aurreikusitako arrazoiak.

3.– SPRIri dagokio ez betetzea egiaztatzeko espedientea abiarazi, izapidetu eta ebaztea.

4.– Deialdi honetan, gainerako arau aplikagarrietan eta hala badagokio emakidaren ebazpenean ezarritako baldintzak betetzen ez badira, hura indargabetuko da, ez-betetzearen aurretiazko espedienteari jarraikiz, eta SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziari laguntzak itzuli beharko zaizkio, berandutze-interesekin batera, 1/1997 Legegintzako Dekretuan eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorraren kontura emandako dirulaguntzen bermeen eta itzulketen jardunbide orokorra arautzen duen eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen baldintzak, jardunbidea eta betebeharrak ezartzen dituen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren II. Tituluan xedatutakoari jarraikiz, dagozkien ekintza legal eta zehapenei kalterik egin gabe. Indargabetze- eta itzulketa-espedienteak (partziala edo totala) abiarazi eta ebaztea SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren Zuzendaritza Nagusiari dagokio.

5.– Programaren xede den jardueraren kostua gainditzen duen laguntza-zatia ere itzuli beharko da gehiegizko finantzaketa gertatzen bada beste laguntzen pilaketaren ondorioz hura kobratu ondoren (10. artikuluan arautzen da). Kasu horretan itzuli beharreko zenbatekoa gertakaria adierazten duen eta itzulketa agintzen duen ebazpenean zehaztuko da.

6.– Halaber, bidezkoa izango da jasotako laguntza itzultzea onetsitako proiektu bat Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo exekutatzeko bada.

7.– Borondatezko epean itzultzen ez bada, premiamendu-bidea har daiteke, aplikagarria den legezko araudian zehaztutakoaren arabera.

**AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.**– Araudi aplikagarria.

Programa honi araudi hau aplikatu ahal zaio:

1.– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzen duen Erregelamendua (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua), dirulaguntzen arloko oinarritzko legedia osatzen duen aldetik.

2.– Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testuategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzazko Dekretua.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura emandako dirulaguntzen bermeen eta itzulketaren jardunbide orokorra arautzen duen eta kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen baldintzak, jardunbidea eta betebeharrak ezartzen dituen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua.

4.– Europako Batzordearen abenduaren 18ko 1407/2013 Zuzentaraua, Europar Batasunaren minimis laguntzen funtzionamendu-itunaren 107. eta 108. artikuluen aplikazioari buruzkoa. (EBAO 2013 L 352/1).

**AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA**

Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan (aurrerantzean, DPB-EDBLO), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendu Orokorrean (aurrerantzean, DBEO) eta datu pertsonalen babesaren arloan aplikatu beharreko gainerako araudian ezarritakoarekin bat etorriz, jakinarazten da SPRIk tratatuko dituela emandako datuak, eta bere Tratamendu Jardueren Erregistroan sartuko dira.

Deialdiaren interes publikoan eta parte-hartzeko egin duzun eskaeran oinarrituta, tratamendu horren xedea da eskatu duzun laguntzaren espedientea kudeatzea, datu pertsonalak tratatzeko oinarri juridikoa SPRIk duen interes publikoa baita, SPRI Enpresa Garapenerako Euskal Agentzia gisa sortzeko estatutuetan ezarritako helburuak betez.

Informazio hori gai horretan eskuduna den Administrazio Publikoari eta SPRI taldeko enpresei laga ahalko zaie.

Datuak laguntza emateko espedientea izapidetu bitartean eta legez eskatu daitekeen epea iraun bitartean gordeko dira, lege-betebeharrak betetzeko xedez.

Interesdun guztiek eskubide hauek egikaritu ahal izango dituzte: datuak zuzentzea edo ezeztzea, tratamendua mugatzea, datuen eramangarritasunari aurka egitea edo tratamendu automatizatuan soilik oinarritutako erabaki baten xede ez izatea, bai eta datuen babesaren inguruan aplikagarria den araudian aurreikusitako beste edozein eskubide ere, idatzizko jakinarazpen baten bidez, honako helbide elektroniko honetara bidalita: [lopdp@spri.eus](mailto:lopdp@spri.eus). Halaber, interesdunek gure Datuak Babesteko ordezkariarekin harremanetan jar daitezke, idatzizko jakinarazpen baten bidez, honako helbide honetan: [dpdp@spri.eus](mailto:dpdp@spri.eus)

Halaber, interesa duen pertsona orok edozein motako erreklamazioa aurkez dezake Kontrol-agintaritza eskudunaren aurrean, eta kasu honetan SPRI, Datuak Babesteko Euskal Agentziaren kasuan honako hau da: [www.avpd.eus](http://www.avpd.eus)

SPRIIn datu pertsonalak babesteari buruzko informazio osagarria eta zehatza jasotzeko, webguneko Pribatutasun Politika atala (<https://agenda.spri.eus/lege-oharra/pribatutasun/>) kontsulta daiteke.

#### AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak oinarri hauekiko hartzen dituen erabakiek administrazio-izaera dute, eta, beraz, eskumeneko jurisdikzioa administrazioarekiko auziena izango da.